

BOZKATU HIRU PROPOSAMENETAKO BAT AREETAKO GELTOKIKO PLAZA BIRMOLDATZEKO

Parte hartzeko orria

Izena: _____

Abizenak: _____

Helbidea: _____

NAN: _____

PARTE HARTZEKO, BEHARREZKO DA DATU PERTSONALAK EMATEA; IZAN ERE, UDAL-LANGILEEK EGIAZTATUKO DUTE PROZESUAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONA GUZTIAK UDALERRIAN ERROLDATUTA DAUDELA.

BOZKETA: URRIAK 11-22

Getxon erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiak.

BOZKATU prozesuan aukeratutako hiru proiektuetako baten alde

- Webgunearen bitartez (<https://zeugaz.getxo.eus>).
- Romo Kultur Etxean (Santa Eugenia plaza) eta Getxo Elkartegian (Arteetako Ogoño kalea 1) ipinitako **hautetsontzietan**, ohiko irekiera-ordutegian.
- Areetako Geltokiko plazan ipinitako **postontzian**.



PARTE HARTU BOZKETA-FASEAN URRIAREN 11TIK 22RA, ETA AUKERATU ZEURE PROPOSAMEN GUSTUKOENA!

* PROPOSAMENEN IRUDIAK GELTOKIKO PLAZAN BERTAN INSTALATUTAKO KUBOAN.

* PROPOSAMEN BAKOITZAREN INFOGRAFIA GUZTIAK, HEMEN: [HTTPS://ZEUGAZ.GETXO.EUS](https://zeugaz.getxo.eus)

BEHIN BAKARRIK BOZKATU AHAL IZANGO DA, ONLINE EDO AURREZ AURRE.

ZURE DATUAK "PARTE HARTZEKO PROZESUAK" TRATAMENDUAN SARTZEN DIRA; HORREN ARDURADUNA GETXOKO UDALA DA (FORUAK KALEA 1, KOMUNIKAZIOA@GETXO.EUS) ETA HELBURUA DU GOBERNANTZA BERRIARI BEGIRA, MARKO JURIDIKOAREN ARABERA, HERRITARRAK DINAMIZATZEA. TRATAMENDUAREN OINARRI JURIDIKOA ARDURADUNARI APLIKAGARRIA ZAION LEGE-EGINBEHARRA BETETZEA DA ETA EZ DAGO AURREIKUSITA DATU PERTSONALEN LAGAPENA EGITEA. TITULARRAK ESKUBIDEA DU DATUAK ESKURATZEKO ETA ZUZENTZEKO, EZABATZEKO ETA TRANSFERITZEKO, BAITA BERE DATUEN TRATAERA MUGATZEKO EDO UKATZEKO ERE, UDALAREN POSTA HELBIDERA EDO DATUAK@GETXO.EUS (DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA) HELBIDERA IDATZIZKO JAKINARAZPEN BAT BIDALIZ, BERE NORTASUNA EGIAZTATZEN DUEN AGIRI BAT SARTUTA, EDO UDALAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAN HORRETARAKO ESKURAGARRI DAGOEN KUDEAKETA ELEKTRONIKOA HASIZ. INFORMAZIO GEHIAGORAKO: WWW.GETXO.EUS/DATUAK



1



Geltokiko plaza
BERRITZEA



2



Geltokiko parkea
ERABERRITZEA



3



Geltokiko hiri-basoa
ERALDATZEA





Geltokiko plaza

BERRITZEA

PLAZA IREKIA, LORATEGI- ETA ZUHAITZ-EREMUAK (%25,75) MUGATUA.

Hiri-espazio hau berritzearen ardatza dauden elementuak birgaitzea eta eremu berdeen azalera handitzea da. Erdigunean, eremu garbi bat uzten du, elkartzeko edo jarduerak egiteko, eta umeentzako joko-eremua hobetzen du.

- GUNE BERDEEN AZALERA HANDITZEA.
- ERDIGUNE GARBIA, TOPALEKU MODURA EDO BESTELAKO JARDUERETARAKO ERABILTZEKO.
- DAGOENEKO EXISTITZEN DIREN ELEMENTUAK BERRITZATZEA: PERGOLA (ALBO-ESTALDURA, EGUZKITIK BABESTEKO), TXORRO-ITURRIA (LABANIK EZ EGITEKO ZOLADURA IPINTZEA, GAUR EGUNGOAREN ORDEZ).
- LUMINARIA ZAHARBERRITZEA.
- UMEENTZAKO JOLAS-EREMUAREN ZATI BAT ESTALTZEA, ETA GUNE HORI IBILGAILUEN TRAFIKOTIK BABESTEA (5 APARKALEKU KENTZEA).



LORATEGI-EREMUA		1.775,00 m ²
EGONLEKUAK / IBILBIDEAK		4.635,30 m ²
ITURRIA	113,00 m ²	
ESTALTZEA	177,00 m ²	
UMEENTZAKO JOKOEN GUNEA		485,00 m ²
ESTALTZEA	177,00 m ²	
ESKU-HARTZEAREN EREMUA		6.895,30 m ²



Pergola birgaitua, Santa Eugenia kaletik ikusita. Ertzetan estalkiak ditu, eguzkitik eta euritik babesteko.



Umeentzako jokoen gunearen zati baten estalkiaren eta hesi berdearen ikuspegia; hala, eremu hori ibilgailuen trafikotik babestuko da (bost aparkaleku kenduko dira).




Birgaitutako pergolaren eta gaur egungo eskaileretan zeharreko eserlekuen ikuspegia (harmaila eran).



Zurrusten iturri birgaituaren ikuspegia. Handitu egingo da gaur egungo lorategia, eremu propio bat sortzeko, Plazako gainerako zirkulazioetatik babestuta.



Mayor kaleko esku-hartzea banatzen duen lorategi-eremuko pasabide berriaren ikuspegia.



Berritutako argien eta lurrean sartutako argien ikuspegia.



Geltokiko parkea

ERABERRITZEA

PARKEA, LORATEGI- ETA ZUHAITZ-EREMUAK (%37,65) MUGATUA.

Proposamen honetan, inguruko eremu berdea handitzen da, lorategi-eremu berrien bidez. Gainera, irisgarritasun orokorra hobetzen du, eta erdialdean espazio bat uzten du libre, elkartzeko eta jardueretarako.

- INGURUKO GAINAZAL BERDEA HANDITZEA, LORATEGI-EREMU GEHIAGO EGINEZ.
- ERDIGUNEA LIBRE, TOPALEKU MODURA EDO BESTELAKO JARDUERETARAKO ERABILTZEKO.
- IRISGARRITASUNA HOBETZEA, SANTA EUGENIAREKIKO LOTURA EGITEN DUTEN ESKAILERAK KENDUTA.
- ORAINGO ITURRIA ETA PERGOLA KENTZEA.
- EGOTEKO GUNE ESTALI BERRI BI.
- UMEENTZAKO JOLAS-EREMUA HANDITZEA, BI ISURKIKO ESTALDURA PARTZIALA IPINTZEA, ETA IBILGAILUEN TRAFIKOTIK BABESTEA (25 APARKALEKU KENTZEA).



LORATEGI-EREMUA	2.870,10 m ²
EGONLEKUAK / IBILBIDEAK	3.833,25 m ²
ESTALTZEA	160,00 m ²
UMEENTZAKO JOKOEN GUNEA	921,95 m ²
ESTALTZEA	185,10 m ²
ESKU-HARTZEAREN EREMUA	7.625,30 m ²



Parkerako sarbidearen ikuspegia, Santa Eugenia kaletik. Eskailerak kendu, eta, horien ordeztan, arrapala bat jarriko da, bi lorategi-eremuren artean; hala, mailen arteko aldeari irtenbidea emango zaio.



Umeentzako jokoen gunearen zati baten estalkiaren eta handitzearen ikuspegia. Lorategi-eremuen bidez, ibilgailuen trafikotik babestuko da eremua (hogeita bost aparkaleku kenduko dira).



Haurrentzako jolasen estalkiaren ikuspegia, barrutik ikusita.



Plazako erdigunearen ikuspegia, estalitako egonleku bietako batekin.



Plazaren ikuspegia, estalpe baten barrutik. Espazio horien proiektua eguzkitik eta euritik babesteko egin da, eta jarduerak bertan egin ahal izateko: merkatu txikiak, azokak...



Gaur egungo luminaria ordeztzen duten eta Ibaiondotik Santa Eugenia plazarantz jarraitzen duen argiztapenaren ikuspegia.



Geltokiko hiri-basoa

ERALDATZEA

BIRIKA BERDEA HIRIGUNEAN, %46,20KO LORATEGI- ETA ZUHAITZ-EREMUAREKIN.

Proposamen honetan, natura plazaren erdira sartzen da, lorategi-eremu berrieekin, eta horien artean eratzen dira ibilbideak eta egonlekuak.

- AZALERA BERDEA HANDITZEA, LORATEGI-EREMUAK JARRIZ; HORIEN ARTEAN EGONGO DIRA IBILBIDEAK ETA EGOTEKO GUNEA.
- LORATEGI-BOLUMEN NAGUSIA, ANFITEATRO NATURAL GISAKOA, ETA TOPALEKU MODURA EDO BESTELAKO JARDUERETARAKO ERABILTZEKOA.
- IRISGARRITASUNA HOBETZEA, SANTA EUGENIAREKIKO LOTURA EGITEN DUTEN ESKAILERAK KENDUTA.
- ORAINGO ITURRIA ETA PERGOLA KENTZEA.
- EGOTEKO GUNE ESTALI BERRI BI.
- UMEENTZAKO JOLAS-EREMUAN ESTALDURA-AZALERA HANDIA IPINTZEA, ETA IBILGAILUEN TRAFIKOTIK BABESTEA (25 APARKALEKU KENTZEA).



LORATEGI-EREMUA	3.523,20 m²
EGONLEKUAK / IBILBIDEAK	3.180,15 m²
ITURRIA	437,35 m ²
ESTALTZEA	190,00 m ²
UMEENTZAKO JOKOEN GUNEA	921,95 m²
ESTALTZEA	481,00 m ²
ESKU-HARTZEAREN EREMUA	7.625,30 m²



Santa Eugenia kalearen ikuspegia, parketik. Eskailerak kendu, eta, horien ordeaz, arrapala bat jarriko da, bi lorategi-eremuren artean; hala, mailen arteko aldeari irtenbidea emango zaio.



Umeentzako jokoen gunearen estalki handiaren ikuspegia. Eremu hori ibilgailuen trafikotik babestuko da, lorategi-eremuen bidez (hogeita bost aparkaleku kenduko dira).



Anfiteatro naturalaren ikuspegia, gaur egun dauden zuhaitzak atzean dituela. Harmailek eserleku gisa balio dezakete, irakurtzeko, hitz egiteko...



Agertokiaren ikuspegia. Egunerokoan, jolaserako eta elkartzeko eremua da, eta, noizean behin, ikuskizunak egiteko. Zurrusten iturria.



Estalitako bi eremu berrien ikuspegia. Espazio horien proiektua eguzkitik eta euritik babesteko egin da, eta jarduerak bertan egin ahal izateko: merkatu txikiak, azokak...



Masten artean jarritako hari-sare batean esekita dauden luminariak; ibilbideak eta egonlekuak argizatzen dituzte.


HIRU PROPOSAMENEN ELEMENTU KOMUNAK

HERRITARREK GEHIENGOZ EGINDAKO EKARPENETATIK HARTUAK:

- **Gune berdeen** azalera handitzea.
- **Irisgarritasuna** hobetzea oro har.
- Gobela ibaiko pasealekuarekin **lotura**, eta **ibilbide berdearen** jarraipena.
- **Argiztapena** hobetzea, plazatik eta Ibaiondo kalean zehar.
- Galtzada-harrizko **zoladura** zimurtsua ordezte.
- Estaldura partzialak, itzala emateko, eta umeentzako **jolas-eremua**.
- **Komun** publikoak.
- Itzalpeko **bankuak**, **iturriak** eta **zaborrontziak**.
- **Kultur eta kirol jarduerak** egiteko aukera: egitura iragankorrak (karpak ez) merkatu txikiak, azokak eta halakoak egiteko.

HIRU PROPOSAMENEN BARNE HARTZEN DITUZTE HONAKOAK:

- Kale Nagusia **oinezkoentzat izatea**, parte batean.
- **Horma-irudiaren fatxadan** jarduketa egitea, irabazten duen aukerarekin bat datorrena eta higiezinaren jabeen komunitatearekin bat etorritz



HERRITARREN GEHIENGOAREN EKARPENAK PROZESUAREN LEHEN FASEAN

ENTZUTE-ALDIAREN EMAITZAK

Jasotako ekarpenak, guztira: 835


Areeta eta Romoko biztanleei telefonoz egindako inkestak: 409

Aurrez aurre jasotako proposamenak: 240


Digitalki jasotako proposamenak: 186

INKESTENDATUAK

Zer neurritan iruditzen zaizkizu beharrezkoak inguruneke jarduketa hauek?




Zer erabilera edo funtzio gustatuko litzaizuke plazan egitea?




EKARPENEN DATUAK

Nolakoa gustatuko litzaizuke izatea Geltokia plaza?



Zure ustez, zer zerbitzu, jarduera edo erabilera har ditzake Geltokia plazak?



* GOBERNU IREKIAN ETA PARTE-HARTZEAN ESPEZIALIZATUTAKO ETA INKESTAK ETA IRADOKIZUNAK BILTZEAZ ARDURATZEN DEN ENPRESAK EGINDAKO TXOSTENAREN DATUAK, WWW.GETXO.EUS WEBGUNEAN KONTSULTA DAITEZKEENAK.



LAGUNDU GETXO HOBETZEN!